

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernua diskurtso xenofobo eta arrazisten detekzioan lanean ari da horiei aurre hartzeko

“Elkarbizitza gorrotorik gabe idazten da” ekimenak elkarrekin elkarbizitza hobetzeko eta aniztasunaren inguruan sentsibilizatzeko egiten duten lana indartzen du

Asteartea, 2019.eko martxoak 26

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza orokorraren bitartez, “Elkarbizitza gorrotorik gabe idazten da” ekimena jarri du abian diskurtso xenofobo eta arrazistak detektatu eta haiei aurre hartzeko.

Ekimenak publikoki zabaltzen diren mezuak, horien frekuentzia, eragina zein argudioak eta eragiten dituzten erantzunak aztertzeko, mezuak monitorizatu eta neurtzeko tresnak eta teknologia erabiltzen ditu,



Nafarroako Jauregian izandako bileraren partehartzaileak.

Gizartearen kezkak hobeto ezagutu eta sarritan okerreko datu edo gezurrezko albisteen ganean sortutako gorroto edo diskurtso baztertzaleei aurre hartu, eta erkidegoan bizi diren pertsona eta kolektiboen aniztasunak bertako bizitza eta demokraziari egiten dizkieten ekarpenen inguruan sentsibilizatzeko erabiliko da ekimen honekin lortutako informazioa.

Ekimena gaur goizean aurkeztu da Ana Olo Herritarrekiko eta Harremanetarako kontseilariak; Álvaro Baraibar, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari orokorrak; Chema González Elkarbizitza eta Giza Eskubideen zerbitzuko zuzendariak; eta Nafarroako Zurrumurrueen Aurkako Sareko, Zaskako, ordezkariak, Ijitoen Idazkaritza, CEAR Nafarroa, Nafarroako Komunitate Islamikoek zein Nafarroako SOS Arrazakeriako kideek izandako bileran.

Elkarte horiek Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Orokorrarekin eta Gobernuko gainontzeko arloekin elkarlanean jardungo dira ekintza xenofobo eta arrazisten detekzioan eta aniztasunak eta pluralitateak gizarte demokratikoetan balorean jartzen dituzten mezu eta estrategiak zabaltzeko lanean bazterketa, arrazismoa eta xenofobia saihesteko.

Gainera, elkarlana oinarrizkoa da diskurtso xenofobo eta arrazisten argudioak zorrotz hartzeko kontzeptuak eta kategoriak zehazteko.

Lan horri esker bazterketa, arrazismoa eta xenofobiaren aurka lan egiten duten elkarteek zein Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Orokorrek egiten dituzten sensibilizazio programak hobetzea ahalbidetuko du. Batez ere toki entitate, ikastetxe zein orokorrean gizarteari zuzendutako programa, bizikidetzarako tokiko plan, hezkuntza ekintza zein sensibilizazio jardunaldien bitartez.